

ZERGATIK UHIN ETA EZ UHAIN.—Bai, Uhin, Azkuek bere hiztegian hala dakarrelako. Axularrek hala erabili zuelako. Laburdin hala dalako (eta hitz hau oso berena dute lapurditarrak). Uhain, Lhandek zionez, Ziberoan erabiltzen omen da; baina Ziberoak ez du itsasorik eta Lapurdik bai. Beraz, itsas gauzetan, Lapurdirik amor emango nioke, beti ere, eta ez Ziberoari. Bestalde, gure literaturaren klasikoak ba dira nor, eta hiztegiak hoberena ere ba da zer.

Mitxelena berak, euskera idatziaren batasunerako —behar bada errazoi horiek kontuan harturik—, *Uhin* hautatu zuen. Hau ere bada zerbahit.

J. S. M.